

## ZOZKETAREN OINARRIAK:

Caja Laboral Popular Coop. de Créditos (aurrerantzean LABORAL Kutxa; helbide soziala: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua z/g, 20500 Arrasate, Gipuzkoa) lehiaketa-bidezko merkataritza-sustapena egingo du, bere webguneko partikularren blogean, hain zuzen “Esaiguzu zertarako aurreztu nahi duzun” izeneko postean, komentario bat uzten duten bezeroen artean. Baita ere, LABORAL Kutxaren Twitter eta Facebook kontuetan iruzkin bat uzten dutenen artean, #AurrezKlik edo #AhorroClick traolak erabilita.

Sustapen hori doan da eta, beraz, saria eskuratzeko ez da inolako kuotarik edo zenbateko osagarririk ordaindu beharko.

Sustapena 2015eko otsailaren 16an hasiko da eta martxoaren 2an amaituko da.

Saridunak LABORAL Kutxako bezeroak izan behar dira edo LABORAL Kutxako bezero bihurtu direnak. Dirua -100 euroko 5 sari- “Aurrez Klik &...” kontuan ingresatuko zaie.

Parte-hartzaileek baimena ematen diote LABORAL Kutxari telefono mugikorraren edo posta elektronikoen bidez beraiekin harremanetan jartzeko.

Sarituek, saria jasotzeko eskubidea izango badute, LABORAL Kutxari baimena eman behar diote beren izen-abizenak saritu gisa argitaratzeko, entitateari sustapen hau hedatzeko egokiak iruditzen zaizkion argitalpenetan edo komunikabide telematikoetan.

Saria –peluxe erraldoia– indarreko legedian ezarritako zergaren eraginpean egongo da eta irabazleak ezin izango du eskudirua jaso sariaren trukean.

LABORAL Kutxak erabakitako epaimahaiak hautatuko ditu irabazleak haien iruzkinen interesa eta orijinaltasunaren arabera.

Sustapen-jardueraren ondorioz auziren bat gertatuz gero, LABORAL Kutxak auzi hori hobekien deritzon moduan ebazteko eskumena gordetzen du, atzeratzea, aldatzea edo baliogabetzea barne.